


KATXOLA-BERRI BASERRIA
A MAILA**PARAISO 22****Egile eta data ezezagunak****Deskribapena**

Baserria desmuntatu eta berreraiki egin zuten bere jatorrizko kokapenetik berrehun metrora, Oriamendiko muinoan. Oinplano txikia du (ez da 200 m²-ra iristen), eta behe oinaz, lehen oinaz eta bi isurkiko estalkiaren oinaz osatzen da. Haren egitura fatxada nagusiarekiko zutak diren hiru hormartetan banatzen da, eta lau bao desberdin ditu, aurreko aldean eta atzekoan bestelako erabilerak baititu (aurrekoan etxebizitza, eta atzekoan nekazaritza eta abeltzaintza jarduerak). Baserriaren atzeko eremu hori dolare batek hartzen du, sagarra biltzera zuzendutako estalkipeko oinetik. Lehen oinean prentsa dago, eta behe oinean muztioa biltzera zuzendutako gunea. Entokatutako harlangaitz hormak ditu, eta baoen azpaduretan eta izkinetako kateatuetan silarriak. Horien artean, fatxada nagusiaren saihetsak nabarmentzen dira, haize babeserako horma aurreratuez. Fatxada nagusiaren goiko bi mailak zurezko bilbaduraz daude osatuta.

Babes erregimena

- * Erregimen orokorra:
Plan Berezi honen A babes mailan sartzearekin loturikoa.
- * Berriazko erregimena:
Kultura ondasun gisa, monumentu kategoriaz, kalifikatu izanaren ondoriozkoa, uztailaren 9ko 169/1996 Dekretuaren bidez (141. EHAA, 1996-07-23koa).
- * Eragindako ingurunea: adierazitako dekretuan mugatutakoa.